

**BERGARAKO UDALAREN ETA JARDUN EUSKARA  
ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2021-2022 ikasturteko  
Lehen Hezkuntzako ume etorkinentzako euskara errefortzuak  
eta familientzako aholkularitza zerbitzua diruz laguntzekoa**

---

Bergaran, 2021eko azaroaren 24an

**BILDU DIRA**

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, Miren Etxeberria Jauregi anderea, Jardun euskara elkarteko lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate jaunaren aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

**ADIERAZI DUTE**

1.- Hainbat urtean zehar Jardun euskara elkarteak eta Bergarako Udalak hitzarmena sinatu izan dutela lehenengoaren urteko jarduna diruz laguntzeko eta hala egin dutela 2021. urteari dagokionez ere.

2.- 2005-2006 ikasturtetik hasita, Jardunek hitzarmen horretan jaso gabeko jardura bat (ume etorkinentzako euskara errefortzuak) bideratzen diharduela eta 2021-2022 ikasturte honetan ere ekintza hori bideratzeko diru-laguntza eskatu duela. Halaber, diru-laguntza eskatu duela 2021-22 ikasturtean abian jarriko duen aholkularitza-zerbitzurako, hizkuntzaren arloko aholkularitza eskaintzeko errefortzuetara joaten diren umeen familiei.

3.- Bergarako Udalak proiektu hori garatzea interesgarria delakoan Alkateak 2021eko azaroaren 23an emandako Dekretu baten bitartez diru-laguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hala, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:



## KLAUSULAK

**LEHENENGOA:** Jardun euskara elkarteak hitzarmen honen eranskinean zehaztuta datozen etorkinentzako euskara errefortzuak eta familientzako aholkularitza eskainiko ditu, 2021-2022 ikasturtean.

**BIGARRENA:** Bergarako Udalak **22.440 euroko** diru-laguntza emango dio proiektu hori burutzeko Jardun euskara elkarteari.

Dirulaguntza hori 3 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %30, 2022ko otsailean %30 eta 2022ko ekainean %40. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuritze-agiriak aurkeztu beharko dira.

**HIRUGARRENA:** Horretaz gain, Jardun euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) ESEPEko Hezkuntzako esparruko batzordean parte hartze aktiboa izango du antolatzen diren ekitaldietan parte hartuz, bertatik sortutako proiektuen jarraipena eginez, proposamenak eginez...
- b) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Bergarako Udalarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
- e) Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero.  
Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- g) Gutxienez bost urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

**LAUGARRENA:** Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua.

**BOSGARRENA:** Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

**SEIGARRENA:** Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

**ZAZPIGARRENA:** Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



Telefonoa: 943 760119 - 943 763361  
Faxa: 943 760319  
E-mail: [jardun@txeak.com](mailto:jardun@txeak.com)  
Errotalde (Luisa / Kikura / Etxean)  
20570 BERGARA

**Miren Etxeberria Jauregi**  
Jardun euskara elkarteko presidentea



**Gorka Artola Alberdi**  
Begarako alkatea



## 2021/2022 IKASTURTEA (ERANSKINA)

### EUSKARA ERREFORTZUAK

- **PARTE HARTZAILEAK:** 55 haur (LH 1-2-3: 41 haur; LH 4-5-6: 14 haur).
- **IRAKASLEAK:** Miren Urrea, Leire Ugalde eta Tamara Zafra.
- **ORDUTEGIA:**

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
<b>Lagundia</b> 16:30-17:30	LH 1-2-3- 4-5-6 Aranzadi	LH 1-2-3 Lagundia (2 talde)	LH 1-2-3 San Martin (2 talde)	LH 1-2-3- 4-5-6 Aranzadi	LH 1-2-3 Lagundia (2 talde)
<b>Aranzadi</b> 17:00-18:00					LH 1-2-3 San Martin (2 talde)
<b>San Martin</b> 16:30-17:30					LH 1-2-3 San Martin (2 talde)
<b>Lagundia</b> 17:45-18:45		LH 4-5-6 Lagundia	LH 4-5-6- San Martin		LH 4-5-6 Lagundia
<b>Aranzadi</b> 18:15-19:15					LH 4-5-6 San Martin
<b>San Martin</b> 17:45-18:45					LH 4-5-6 San Martin

### - 2020/2021 IKASTURTEKO EGUTEGIA, ESKOLA EGUNAK ETA ORDUAK

Etorrinen errefortzuetako klase egunak. **Jai egun edo oporrak**

URRIA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
					2	3
					9	10
					16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	28	30	31

AZAROA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

ABENDUA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

URTARRILA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

OTSAILA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

MARTXOA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

APIRILA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

MAIATZA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

EKAINA						
Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17		

- **AURREKONTUA:** 14.940 euro

- Klase egunak 145 – Guztira 419 klase ordu
- 415 klase ordu x 36 €/ordua = 14.940 euro

### **FAMILIENTZAKO AHOLKULARITZA**

- **EGUTEGIA:** Irailaren 1etik ekainaren 30era bitartean, egunean 2 ordu

- **AURREKONTUA:** 7.495 euro.

**AURREKONTUA GUZTIRA:**  $14.940 + 7.500 = 22.440 \text{ €}$

